



ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN AMAIERAKO TXOSTENA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta hori sustatu beharko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez; eta bertan jasoko da zer iritzi duten datorren arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektu eta ordezkartasun handieneko erakundeek puntu hauei buruz:

- a. Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b. Araua onestea beharrezkoa eta egokia ote den.
- c. Arauaren helburuak.
- d. Egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Agindu hori betetzeko, honako webgune honetan argitaratu da Bitartekaritzari eta Justizia Errestauratiboari buruzko Foru Legearen aurreproiektua egin aurreko kontsulta publikoa (Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren abuztuaren 31ko 24/2021 Foru Aginduaren bidez abiarazi zen prozedura):

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/bitartekaritzari-eta-justizia-errestauratiboari-buruzko-foru-legearen-aldez-aurreko-kontsulta>

Aldez aurreko kontsultan, herritarrek iradokizunak aurkezteko aukera izan dute 2021eko irailaren 3tik urriaren 3ra bitartean.

Parte hartzeko bidea posta elektronikoa izan da, eta mezuak helbide honetara bidali behar ziren: je.ollero.peran@navarra.es

Jendaurreko epea amaitu da eta epe horretan zenbait iradokizun eta proposamen jaso dira bi dokumenturen bidez:

- Nafarroako Gizarte Laneko Elkargo Ofizialaren proposamenak gai hauei buruz:
 - o Azterlanak gehitzea orain arteko bitartekaritza-lanaren eragina balioesteko.
 - o Kontuan hartzea bitartekaritzaren helburuak akordioak lortzetik haratago doazela, honetarako ere balio baitu:
 - *“Prozesuetan dauden pertsona zaurgarriak babestea (adingabeak, desgaitasunak dituztenak, adinekoak) eta haiei ahotsa ematea.*
 - *Epaitegiek berek bakerako eta elkarrizketarako metodologia zilegitzea eta hari garrantzia ematea, irabazi-irabazi kultura aldatzea eta lankidetzaren alde eta guztion ongiaren errespetuaren alde egitea guztiok irabaz dezagun.*
 - *Prozesu gatazkatsuetan, gune bat eskaintzea giza sufrimenduari, hura entzun, erregulatu eta modu partekatuan erregulatzeko.*
 - *Nork bere burua ezagutzea, kaltea bestarengan ulertzea eta enpatia ahalbidetzea.*



- *Gurasoei negoziazorako eta kudeaketa emozionalerako “trebakuntza” eskaintzea, etorkizunera begira.*
 - *Egoera gatazkatsuetan nork bere ardura har dezan eskatzea, gauzak bestela egiteko aukerak ikusaraztea, hazkunde eta ikaskuntza esanguratsuak ahalbidetzeko.*
 - *Jendea trebatzea zerbait kontrolatu edo zerbaitetan eragin ezin dutenean, hala dela onartzeko eta beren esku dauden gaietan hobeki jarduteko.*
 - *Pertsonen beren gatazken, erabakien eta konpromisoen ardura hartzeko aukera eskaintzea.”*
 - Mekanismoak ezarri beharra koordinaziorako, prestakuntza bateraturako, koordinazio teknikorako, kontrolerako eta gainbegiratze-lanerako, zerbitzu publikoaren ikuspegia erabiliz.
 - bideratze mekanismoak, bitartekarien betebeharrak eta elkargoen erantzukizunak arautzea.
 - Saio-kopurua kasuen konplexutasunera egokitzeko aukera egotea, bereziki dibortzio-prozesu arras gatazkatsuetan.
 - Bitartekaritza partekatuan eginiko lana balioestea.
 - Langileak egotea epaitegietatik bideraturiko kasuak hartu, aztertu eta dauden zerbitzuetara zuzentzeko.
 - Gatazkei aurrea hartzeko esku-hartzea sustatzea eremu komunitarioan.
 - Arreta lurralde osoan ekitatez eman dadila sustatzea.
 - Herritar guztiei oro har bideraturiko zabalkunde-lana bultzatzea.
- Iruñeko Abokatuen Elkargoko Bitartekaritza Zentroak (CEMICAP) proposamenak egin ditu gai hauei buruz:
- Ados dago arauz bereiztearekin, batetik, eztabaidak konpontzeko beste bitarteko egokiak eremu zibilean, merkataritzakoan eta administrazioarekiko auzietakoan eta, bestetik, justizia errestauratiboa.
 - Iruñeko Abokatuen Elkargoko Bitartekaritza Zentroak eta Iruñeko Abokatuen Elkargoak funtsezko eginkizuna izan behar dute esparru penaleko bitartekaritzan eta justizia errestauratiboan Iruñeko eta Agoizko barruti judizialean.
 - Kontuan hartu behar da oso interesgarria litzatekeela justizia errestauratiboa sartzea doako laguntza juridikoaren eremuan.
 - Iruñeko Abokatuen Elkargoko Bitartekaritza Zentroak bitartekaritza penalean eta justizia errestauratiboa: n eginiko lanaren berri ematea, baita dauden lankidetzahitzarmenen berri ere.

Jasotako ekarpenak honela balioetsi dira:

- Nafarroako Gizarte Laneko Elkargoaren ekarpenak oso egokitzat jo dira, eta, ahal den neurrian, legezko testuan sartuko dira. Bereziki bermatuko dira lurralde-ekitatea, herritarren arteko zabalkunde-lana, esku-hartze komunitarioa eta bitartekaritza partekatua aldezte. Koordinazio eta analisi ereduak aztertuko dira espedienteak zerbitzu egokienera bideratzeko. Bitartekaritzaren eraginari buruzko ikerketak aztertzeko eskaera dela eta, azken urteotan eginiko txostenak aztertzen ari dira. Proposatuta eta iradoki diren bitartekaritza-helburuak bat datoz, bete-betean, garatzen ari den legeriarekin, baina ezin dira osorik jaso testu arauemailean eta, beraz, elementu orientagarritzat hartuko dira.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Políticas
Migratorias y Justicia
Migrazio Politiketako eta
Justiziako Departamentua

**Servicio de Ejecución Penal
y Justicia Restaurativa**
**Zigor Betearazpeneko eta
Justizia Errestauratiboko Zerbitzua**
Monasterio de Iratxe, 22-bajo
Iratxeko monasterioa, 22-behea
31011 PAMPLONA / IRUÑA

- Iruñeko Abokatuen Elkargoko Bitartekaritza Zentroaren ekarpenak ere arras egokiak eta taxuzkoak dira. Proiektuak idazpuru ezberdinetan bereiziko ditu, batetik, eztabaidak konpontzeko beste bitartekoak eremu zibilean, merkataritzakoan eta administrazioarekiko auzietakoan, eta, bestetik, justizia errestauratiboa esparru penalean. Era berean, jaso egingen da zein den lanbide elkargoen eginkizuna legeak aipaturiko eremu guztietan, eta jurisdikzio bakoitzaren berezitasunak mantenduko dira.

Horiek horrela, aurrera doa Bitartekaritzari eta Justizia Errestauratiboari buruzko Foru Legearen aurreproiektua prestatzeko prozesua.

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean. Zigor Betearazpeneko eta Justizia Errestauratiboko Zerbitzuko zuzendaria, Jorge Ollero Perán. (Sinadura jatorrizkoan dago)